

URKIOLAKO PARKE NATURALA

I. Hurbilketa.


Filosofia ikasi nebanean, esaldien adiera egoki eta sakonetik ezagutu ahal izateko, derrigorrezko dala, esaldiaren katea osotzen daberen berba bakoitzaren esangura ezagutzea irakatsi eusten. Egin eginean be, hari-harira datorkit oraingo honetan orduan ikasitako leloa. Urkiolako Parke Naturalaren gainean gogoeta egiten haserakoan, bidezkoa eta berezkoa iruditzen jat, lehenengo eta behin, zer dan Urkiola eta zer Parke Naturala azalduz haztea. Horrela jardungo dot, bada, aurkeztu gura deutesdan arlora gehiago hurreratzeko asmoz.

I.1. Urkiola.

“Urkiolak Durangaldeko gailurretan ditu mugak, Anboto eta Aramotz mendikateen gailurretan, hain zuzen. Mendigune horien gaineko harkaitzak ekialdetik mendebalderantz daude lerroturik, Kantauri-Mediterraneo isurialdeen ur-banaketa osotuz.

Ingurune hori balio handikoa da, natura, kultura eta ikuspegiaren aldetik, eta Euskal Herriko ekosistemarik bereizgarrienetarikotzat har daiteke.”

Honela hasten da lurraldea Urkiolako Parke Naturala izendatu eban Legea (EHAaren 1990ko 3. zk.n argitaratutako aben-



duaren 29ko 271/1989 Dekretua). Esan dan legez Durangotik abiatu, eta Mañarian zehar Otxandiora doan errepideko mendatean aurkitzen dan auzoa, bertako santutegia, eta Anboto, Aramotz eta Arangio mendiak osotutako mendikatea bizkarrezur edo ardatz daukazan inguru zabala ba-

rru hartzen ditu. Izenak berak dinoenez, jatorriz, urki-lekua edo halako zerbait esan nahi dau, gaur egun, bertako inguruetan (landatu barri diran batzuk kenduta) urki gutxi ageri bada be.

Ingurugune honetatik hurrean jaioa izanik, gogo biziz jarraitu izan dot Urkiolako Parke Naturalaren inguruan azken urteotan plazaratu izan diran barriak. Nik, gainera, neure lana dala bitarteko, harako barriak sakonago ezagutzeko aukera izan dot, inguru horri buruzko hainbat txosten, idazki eta liburuxka euskaratu beharra izan dodanez.

Egia esan, Urkiolak halako zirrara berezia sortu izan deust txikitatik, behar bada, urtero bertara egiten genduan errogatiba izaten zalako guretzat herriko muga estuetatik kanporantz urte-teko ate bakarra. Benetan oso egun zoragarria izaten zan, eta atseginez betetzen zituen gure barruak.

Bestalde, Urkiolako Parke Naturalaren barruan aurkitzen diran hainbat mendi, baso eta lurralde etxe-etxeokoak ditut, eurentan zehar hainbat joan-etorri egina nazalako, edota, aurrez aurre, urrutira, behin baino gehiagotan ikusi izan ditudalako.

Halakoen artean, aparteko aitaketa merezi dabe, bertako eliza-santutegiaz gainera, inguruan dagoen pagadiak, eta alderik

alde zeharkatzen dauan mendizerrak. Egin-eginean be, bertako hainbat inguru (Arangio, Etxangatx, Orixol, Atxiger, Leziaga, Gantzatz, Atxin, Ipiztikarriaga, Zabalandi, Anboto, Asuntza, Kondebaso, Oleta, Pol-Pol eta Urkiola inguruak) etxe-etxezko izaten genduzan. Gaur egun be oraindik bizi-bizirik ditut neure gogoko ispiluan.

Izaten genduan atxakirik ugari (ahuntzak, ardiak, behorrak, basabehiak... ikustea, kamamila batzea, Atxingo erreka amuarrainak edo karramarroak harrapatzea, perretxikoak edo udabarriko zizak batzea, gerrako lubanetako kobrezko kartutxo azalak jasotea, eta halako beste hainbat jarduera edo jolas) inguru horreetatik zehar ibilaldiak egiteko.

Urkiola, era berean, nahiko leku ezaguna izan da Euskal Herri osoan be. VII-IX. mendeen artekoa dan bertako San Antonio Paduakoaren eta San Anton abereen zaintzailearen santutegiak ospe handia izan dau Bizkaia osoan, Gipuzkoa gehientsuenean eta Nafarroako hainbat herritan. Txomin Agirek Garoa liburuan pasarte zirraragarria eskaintzen deutso. Pasarte horretan argi ikusten da, zer-nolako eragina eukan Gipuzkoa osoan zehar. Anbotoko damaren barriak be Euskal Herriko bazter guztietara heltzen ziran, inguru horreen barri alderik alde zabalduz. Ezin da ahaztu, bestalde, bertatik igaroten zala itsasaldetik Gasteizerako (eta hemendik Gaztelara) pasabidea egiten eban bide nagusienetarikoa bat.

Urkiola eta bertako inguruak, bestalde, hainbat udal ospetsutako (Elorrio, Durango, Abadiño,...) lurak barru hartuz, Parke Natural izendatzeak poz handia sortu eban hainbatengan, hori jotzen zalako inguru horretan jazoten zan naturaren hondameneri behingoz galga jartzeko bide bakartzat. Egin-eginean be, hasita egozan baztarretan pinuz estaldutako baltzune zabalak nagusitzen, eta harrobi handiak bertako haitz zuri izugarrien inguruak hondatzen.

I.2. Parke Naturalak

Gizakiak Lur planetan dagozan espezie guztien eboluzioan gorenengo maila izanik, eragingarri bihurtu eban bere nagusitasuna, eukan ahalmen intelektualaz konturatu zan une beretik. Baliabide honi esker, munduan egiten dauan igaroaldi laburra erraztu eta egokitzeko bere existentzia-gunc egin dauan inguru aldatzeko gauza izan da. Zoritxarrez, arrazionaltasunak eta plangintzak baino gehiago erosotasun bila ibiltzeak bultzatutako inguruaren manipulazio honetan, gizakiaren ezaugarria dan adimen mailako nagusitasunagaz bat ez datoza gehiegikeriak egin ditu. Heldu da, berandu izan baino lehenago, adimen honi dei egin eta biosferan gure bizilagun ditugun espezieengan gure jarduerak sortu dituen kalteak neurtzeko ordua.

Egoera honetan Parke Natural aditzeko erak aparteko izaera hartu dau. Gizakion eragin handiegia izan ez dabean lekuetan, hau da, izadiak oreka ekologiko egonkorra jagon dauan inguru-needan, flora eta fauna gordetzea eta arretaz zaintzea betebeharreko helburu nagusi bihurtu behar dogu. Lurralde bat Parke Natural izendatzea, arazo hau zehatz-mehatz eta unean-unean araupetzeko modura hartu behar dogu, hau da, oraindik hondatu barik dagozan inguruak zentzunez eta era egokian zaintzeko ahalegin modura.

Honetaz kontuan hartzekoak dira Euskal Herriko Natura Babesteko Legeak (EHAA 1994ko uztailaren 27an argitaratutako ekainaren 30eko 16/1994 legea) gogoratzen deuskuzan honakook:

“Gaur egungo gizartean, natura gordetzea herritar eta herri-agintaritzaren kezka bilakatu da. Bai norbere ingurutik bai ikuspegi orokorrago batetik begiratuta, natura-baliabideen ustiapen ekonomikoa kontrolik gabe egiten delako, landaredi eta fauna-ko espezieak galtzen ari direlako eta oso egoera onean zeuden naturaguneak hondatuz joan direlako sortu da ardura hori.

Behar-beharrezkoa da gure lurraldeko natura-baliabideak, oinarrizko prozesu ekologikoak eta ingurugiroaren edertasuna gor-


deko dituen sistema egokia sortzea. Horrexek bermatuko baitu, gure ondorengo belaunaldien ongizatea arriskuan jarri gabe, garapen bateratua izatea”.

Industrializazioak, herriak neurri barik handi egitea eta baserri inguruak jende barik geratzea ekarri izan dau, batez be, azken mende honetako azkenaldian. Naturaren baliabideak ekonomia bultzatzeko tresna huts modura hartu izan ditugu, eta horrek, sarritan, izugarritzko kalteak sortu ditu gure inguruetan.

Halan da be badirudi konturatu garala, azken batean, herrietako bizilagunok, etxe erraldoi artean eta automobilerik beteriko errepideetan itobeharrean bizi garala. Eta, gure etorkizuna arrisku biziaren ikustean, irtenbide bila edo hasi gara.

Honetaz gogoeta luzeak eta, behar bada, antzuak egiten jardun barik, bi aitaketa eginez jarri nahi deusadaz mugak esku artean dodan lan honi. Horretarako Euskal Herriko Natura babesteko Ekainaren 30ko 16/1994 legean aurkitzen ditugun abiapuntuak jarri nahi ditut aurrean. Bertan, batetik, gure inguruak jaso izan dituen kalteak ekartzen deuskuz gogora eta, bestetik, oraindik hondatu barik aurkitzen diren lekuak babesteko neurriak hartu beharra gogoratzen.

Munduko beste hainbat herrialdetan aspaldi martxan jarritako bideak begiratu, gure artean be, behingoan naturagune babes-



tuak ezarri beharra ikusi izan dogu eta lanari ekin. Ahalegin horretan Urdaibai izan zan lehen urrats handia. Gero, beste batzuk etorri dira, esaterako, Urkiolako Parke Naturala. Honen barri emon gura deusut handi-handika, zehaztasunak hurrengo baterako itziz.


II. Urkiolako Parke Naturala

Azken urte honeetan asko idatzi izan da Urkiolako Parkeari buruz. Argitalpen ederrak kaleratu izan dira. Beraz, berri ugari dogu eskuartean. Urkiolako Parke Naturalari buruzko informazio-eskuliburu batean, gure jardun-aldeari muga zehatzak jaritzen deusozan honako berbok aurkitzen ditugu:

“Urkiolako Parke Naturalak barru hartzen duen lurraldea, hainbatean, Euskal Herriak azken mende t'erdian jasan behar izan duen erasotik kanpo geratu den inguru ekologikoa da. Ekologia, paisaia, historia eta kultura alorrean zeukan aberastasunak ingurua parke naturalizat jotzea gomendatu zuen, horrela, geroko belaunaldien gozamenerako oso-osorik gorde ahal izateko.

Parkearen azalerak 6.000 Ha. inguru ditu eta honako udalerrri hauetako lurrak hartzen ditu barru: Bizkaiko Herrialdeko Abadiño, Amorebieta-Etxano, Atxondo, Dima, Durango, Izurtza eta Mañarikoak eta Arabako Aramaiokoak. Urkiolako parke Naturalak, harkaitz tenteak osotuz ekialdetik mendebalderantz lerrotatzen direlarik Durangaldeko mendiak deitu ohi diren Anboto eta Aramotzeko mendizerrak eta gailurrak hartzen ditu barru; bertako gailurrak, Kantauri eta mediterraneoko uren arteko muga-lerro direlarik, parke aparta eta berezia eratzen dute”.

Aurrekoari lotuz, berau dogula Euskal Herriko Autonomi Elkarteko lehen Parke Naturala esanaz hasiko gara, bada. Egin-eginean be, 1989. urteko azken egunetan dauka sorburua. Sor-tu eban legeak, zeozelango ardura be agertzen dau, hain zuzen



be, mendez mende gorde izan dan ingurune zoragarri hori betirako galtzeko dagoen arriskua:

“Urkiola artzainleku eta basogune izan da betidanik; aldean ez dago aipatzeko herririk, S. Antonio Saindutegia eta aldame-neko ostatu eta jatetxeak izan ezik.

Hala eta guztiz ere, baso-suteak, bertako landaretzaren suntsipena eta horren ordez, ekonomiaren ikuspuntutik errentagarriago diren hazkuntza azkarragoko beste espezie batzuk landatzeko dagoen joera, harrobiak ugaltzea, azpiegitura-lanak dirrela-ta gertatzen ari diren aldakuntzak eta, orokorrean, azken hamarkada hauetan Urkiolak jasan duen neurritz kanpoko erabilera, horiek guzti horiek aski dira Urkiolako natur-ondasunak kudeatzeko sistema berri baten beharra argi eta garbi ikusteko.

Martxoaren 27ko 4/1989 Legeak, natur-inguruneak eta basalandaretza eta animaliak babestekoak, Urkiola lehen esandako moduan zaintzeko aukera egokia eskaintzen du, parke naturalizat jotzearen bidetik, hain zuzen.

Horixe da, zalantzarik gabe, Urkiolaldea antolatzeko berebiziko bidea, horren bitartez, xede desberdin batzutura heltzea

nahi da, hots, dauden ekosistemak ahalbait hoberen gordetzea, hezkuntza eta jolas erabilerak sustatzea eta, babesgai diren ondasunak kontutan hartuz, bertako bizilagunen bizimodua geldiero baina goraka joan dadin ziurtatzea.(...)"

Lege hori kaleratu aurretik, jakina, hainbat ikerlan egin ziran, eta atera ostean hainbat urrats emon, bertako Parkea martxan jartzeko. Hurrengo honeek ditugu garrantzitsuenak: 1990.eko urtarrilaren 16an, Eusko Jaurlaritzak Urkiolako lehen Patronatuburua izendendatu eban, apirilaren 10ean egin ebela lehenengo batzarra; Halan da be Parkearen benetako kudeaketa 1991. urtean hasi zan, maiatzaren 3an Zuzendari-Artatzailea izendatu ebenean; geroago, 1993.eko urtarrilaren 29an, Natur Baliabideen Antolamendurako Plana gertatzea onartu zan, hurrengo urtean (otsailaren 22ko 102/1994 Dekretu bidez) martxan jarri; era berean, Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Plana be martxan jarri zan abenduaren 5eko 505/1995 Dekretuaren bidez.

II.1. Helburuak.

Esan dugu Parke Naturalaren helburu nagusia lurralde bateko naturagunea jagotea dala. Egin-eginean be Urkiolakoari dagokionean, Durangaldeko leku malkartsuen artean, Anboto eta Aramotz mendikateetan mugak dituen Urkiola izeneko esparru zabalak Parke Naturalizat jotzea, eta bertan Natur Inguruneak eta Baso-landaretza eta Animaliak babestea. Horretarako, lege bidez (martxoaren 27ko 4/89 Legea) araubide zehatza ezarri da. Aitaturiko lege horretan, beste hainbaten artean, honako urratsok jartzen dira helburutzat:

- Oinarrizko prozesu ekologikoak jagon edota berreskuratzea.
- Ugaritasun genetikoa gordetzea.
- Baliabide naturalen ekoizpena hobetu eta indarbarritzea.
- Baliabide naturalen erabilera ordenatu eta arrazoibidezkoa egitea.
- Natur ekosistemek eta ikuspegiak dituen alderdi ugariak, eta halakoan berezkotasuna eta edertasuna jagotea.

-Alde horretako balore naturalak ezagutu eta gozatzeko asmoz kanpotik bertara datorren jendea bideratu eta ordenatzea.

-Baliabide naturalen zentzuzko erabileran oinarritutako gizarte eta ekonomia bultzatzea.

Aurreko helburu horreek lortzeak, jakina, neurri batzuk be hartu beharra eskatzen dau, halakoak ez dira berez lortzen eta. Urkiola Parke Natural izendatzen dauan aitaturako legeak hainbat neurri hartzen ditu. Lehenengo hondaketa geldiarazteko, aurrerantzean parkearen muga barruan debekatuak izango diran jarduerak jaso daikeguz. Hori dala eta, Parkea babesteko aurrerantzean debekatuta egongo da:

“-Bertakoak ez diren landare edo abereak parke-esparruan sartzea, dagokion Foru Aldundiko Nekazaritza Sailaren baimenik gabe.

-Zaborrak edo zarama, edonolakoa delarik ere, botatzea edo uztea, kudeaketa organuak horretarako egokitutako lekuetatik at.

-Suak piztea, ohizko gauzetarako eta dauden etxeen barruan egiten direnak salbu.

-Parke naturaleko mugen barnean, kirola egitea motordun ibilgailuetan. Halabaina, dauden etxe-multzoetako sarbideetatik zehar horietakoetan ibiltzea zilegi da.

-Akanpada librea.

-Produktu fitosanitarioen erabilera.”

Halan da guztiz be, ezer gutxi lortuko litzake debeku batzuk emonez. Parke Naturala martxan jartzeak, hain zuzen be, bestelako hainbat egintza abiabidean jartzea be eskatzen dau. Horrela jokatu da jarraian ikusiko dogunez.

II.2 Administrazioa.

Urkiolako Parke barruan dagozan udalemiak gorago aitatu ditugu banan-banan. Eurak eta alde honetan interesak dituenak zuzenean esku hartuta atara ahal izango da aurrera parke ho-

nen administrazioa. Hori dala eta, Arabako eta Bizkaiko Aldundiek Lankidetzaren Hitzarmena egin dabe. Horrela, Parkearen kudeaketa bideratzeko Urkiolako Parke Naturaleko Patronatua sortu zan, bertan agertzen jakuzala lurralde horretan partehartzerik daukeen guztiak. Patronatu honek, ordezkariak zabala daukala, hurrengo kideok ditu barruan:

- Patronatuburua, Bizkaiko Aldundiko Nekazaritzako diputatua.
- E. Jaurdaritzako Nekazaritza eta Arrantza Saileko bi ordezkari.
- E. Jaurdaritzako Ekon. Plan. eta Ingurugiro Saileko bi ordezkari.
- Arabako Foru Aldundiko ordezkari bat.
- Bizkaiko Foru Aldundiko ordezkari bat.
- Parke barruko udalen ordezkari bana (8 ordezkari).
- Ingurugiroaren aldeko Euskadiko Elkartearen ordezkari bat.
- Euskadiko Ekologia eta Artapen Elkartearen ordezkari bat.
- Elkarte ekologista eta kontserbatzaileen ordezkari bat.
- Euskal Herriko Mendiko Federazioaren ordezkari bat.
- Euskal Herriko Nekazaritza Federazioaren ordezkari bat
- Euskal Herriko Basozainen Federazioaren ordezkari bat.
- Nekazaritza Ganberaren ordezkari bat.
- Parkeko finkean jabeen elkarte eta taldeen bi ordezkari
- Nekazaritzko Sindikatuen ordezkari bat.
- Euskal Herriko Unibertsitatearen ordezkari bat.
- Gerediaga Elkartearen ordezkari bat
- Ehiza eta Arrantza Klub eta Elkartearen ordezkari bat
- Parkearen Zuzentzaile-kontserbatzailea.

Horretaz gainera, bada, baita be, talde zuzentzaile txikiago bat, eguneko jardunean sortzen diran arazoei bat-bateko erantzuna emateko ardura daukana, Patronatuko Batzorde Iraunkorra deritxona, honako kideok dituana:

- Batzordeburua, Bizkaiko Nekazaritzako foru diputatua
- Eusko Jaurdaritzako Sailen bi ordezkari.
- Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Saileko ordezkari bat.



- Mendi eta naturguneen zuzendaria.
- Parke barruko udalen ordezkari bat.
- Patronatuko erakunde eta kolektiboen ordezkari bat.
- Lurren jabeen ordezkari bat.
- Parkeko Zuzendari-Artatzailea, idazkaritza lanean.

Aitatutako bi batzordeok dabe Parkearen ardura, urtero erabakitzen dituala lehentasunak, plangintzak eta, baita be, erabili beharreko aurrekontuak

II.3. Jarduerak

Edozein parke naturaletan egiteko diran jarduerak martxan jartzerakoan, beti izan beharko dira kontuan gorago aiatatu ditugun helburuak, batez be natura zaintzea eta naturaren edertasunak jendearen zerbitzuan, bertan bizi diranen nahiz kanpotik etortzen diranen esku jartzea. Urkiolako parke honetako jardue-

rak ikuspegi hori gogoan hartuz eratu izan dira. Argiago azaltzeko hurrengo azpiatal honeetan sailkatu daikeguz:

II.3.1. Hezkuntza eta jolas jarduerak

Natur Baliabideen Antolamendurako Planak, hezkuntza-jarduerari buruz diharduen 14. artikuluan seinalatzen dauan legez, parkearen helbururik nagusienetarikoa jendea natur ingurura hurreratzea da. Horretan saiatu izan dira Urkiolako Parke Naturaleko arduradunak be.

Horretara, bada, alde batetik hainbat liburu-liburuxken argitalpen (Euskaraz: Urkiolako Parke Naturalaren Gidaliburua, Urkiola edota Begirale txikientzako gidaliburua), plano, kartel eta ibilbide didaktiko, mendiko ibilbideen bilduma nahiz informazio-orri argitaratu ditue, Parkeko gora-behera guztiak aztertu ostean jendeari ezagutu dagiezan aurkeztuz. Amaibako lana egin dabe, era berean, ikastetxeekin izandako lankidetzaren eta bertara etorritako jendeari eskainitako zerbitzuaren bidez.

Honetan urratsik handiena bertan jarritako Toki-Alai Interpretazio eta Harrera Zentroa izan da. Zentroko behe-solairuko areto bitan banatuta erakusketa bat jarri da. Lehenengoa, Urkiola eta gizakiari eskainia, Parkearen egoera, aurrehistoria, mitologia, erlijio-tradizio eta E.H.ko Autonomi Elkarteko parkeei aitaketa egiten deutseen hainbat panel dituana. Solairu horretan, gainera, jendeari informazioa emoteko eta argitalpenak eta oroitzapenak saltzeko gune bat be jarri da. Urkiolako naturguneari eta tradiziozko jarduerari eskainitako bigarren aretoan panel, maketa eta beirarasa bidez basozaintza, abeltzaintza, nekazaritza eta bestelako jarduerari buruzko azalpenak emoten dira.

Aparteko aitaketa merezi dabe ikasturtean zehar, aldez aurretik eguna izendatuz eskola-umeen taldeei edota udaldiko lane-gunetan edozein motako taldeei parkea hobeto ikusi eta eza-

gutzeko eskaintzen jakezan jarduerak. Horretarako hainbat ibilbide gertatu dira mapa eta guzti.

Jolas-jarduerak Parkearen erabilera publikoa erraztera zuzendu dira, bertan jolasaldeak ezarri eta zainduz, ibilbideetan seinaleak jarritz, eta parkeko sarbide ezberdinetan Parkeko kokagune, arautegi, baimendutako eta debekatutako erabileren piktograma eta abarri buruzko panel handiak, mapa eta guzti, jarritz.

Bost urtetan zehar (1991-1995) arlo honetan eginiko inbertsioa ehun eta berrogeita bat milioi bederatziehun eta hirurogeita zazpi mila laurhun eta hogeita zortzi (141.967.428) pezeta-koa izan da.

II.3.2. Baso-erabilera

Gaur egun Urkiolako Parkeko zuhaitzen azalera 3.200 Ha.koa da, horrek azalera osoaren %53 hartzen daua barru. 1991. urtean, honela banatuta egozan zuhaitzak: bertako espezieetako zuhaitzetan 1.500 Ha. eta kanpoko espezieetako landaketetan 1.700 Ha.; azkenon artean 1.000 Ha. intsinis pinuak osotzen ebazan.

Azken urteotan aparteko ardura jarri da bertako zuhaitziak, zehatzago esanda, pagadiak eta haritz kandudunezko hariztiak berriro ezartzen. Hainbat urki be sartu dira, batez be santutegiaren inguruan. Urbazter eta leku hezeetan, oster, haltza eta lizarra moduko espezie egokiak landatu dira.

Horrela, bost urtetan (1991-1995 bitartean) aurretik sastrakez (otadiz, txilardiz, iralekuz) estaldutako lurretan, eta koniferoak ebaki osteko lur gorrietan bertako zuhaitzak sartuz 102 Ha. berreskuratu dira. Larre-lekuak izateko lekuetan pagoak eta urkiak nahasian jarri dira. Horretarako 21 hektareatan 4.200 landaretxo erabili dira.

Berreskuraketa lanok, jakina, gehienak herri onurako basoetan egin dira. Gainerakoetan, laguntzak emon dira bertako

zuhaitz-landaketak bultzatzeko eta hainbat kasutan bertako landareak eukezan zuhaitziak erosi be bai. Horrela, alor honetan hirurogeita bederatzi milioi sei ehun eta berrogeita hamabi mila zortzi ehun eta bost (79.652.805,-) pezeta inbertitu dira.

II.3.3. Abere erabilera

Parke barruan bultzatu diren tradiziozko jardueren artean abeltzaintza dogu ezagunena. Horrek gehiegizko larratzea ekarri eban sasoi batean, esaterako, Mugarrakolanda, Urkiolagirre, Saibi, Zabalandi eta Tellamendin. Parkeko kudeaketari hasiera emoterakoan larre eta belardiek azaleraren %9,39a barru hartzen eben.

Larreak hobetu eta jagoten jarri dira ahaleginak. Horretarako sastrakadiak garbitu dira, eta belardietan ongarriketak edo zuzenketak egin. 800-900 m. arteko altuera jarri da koniferoak landatzeko mugatzat, esaterako, Eskuagatxen.

Mendi-Nekazaritzako Elkarteen laguntzaz hainbat hobekuntza egin dira abere-azpiegituren be, abereentzako tramendu-eskortak, uraskak, osasun instalazioak eta abar eraikiz. Halan da be, pinua sartzearen eta jendea fabrikan lanean hastearen eraginez izugarrizko gutxitzea izan ostean barriro ahaleginak egin badira be, oraindik abere gutxi dabil parkeko mugetan, horrek larreak sasi-sastraka bihurtzeko arriskua ekartzen dauala.

Honetan be, inbertsio handia egin da, batez ere bazterrak garbitzen eta larre egokiak gertatzen, guztira berrogeita hamaika milioi ehun eta berrogeita hiru mila laurehun eta laurogeita bost (51.143.485,-) pezeta izan dirala.

II.3.4. Azpiegitura

Edozein naturgunc parke izendatzeak bertako azpiegitura aztertu eta egokitzea eskatzen dau. Urkiolako Parkean arlo honetan egin dira inbertsiorik handienak, hau da, ehun eta hirurogeita hamazazpi milioi berrehun eta hirurogeita bederatzi mila be-

deratziehun eta hirurogeita bederlatzi (177.269.969.-) pezeta. Inbertsio guzti hori honako arloetan erabili da:

a) Bide-azpiegiturak hobetzen. Irizpide nagusia lehendik egozan bideak hobetu eta konpontzea izan da. Era berean mugatu egin da bertako bideen erabilera, bertan aldean lurrak dituenek bakarrik zeharkatu ahal izango dituala ibilgailuz. Aparteko kasuren baten izan ezik, ez da bide barririk egin. Honetan egin dan lanik aitagarriena, Urkiolako santutegitik urten, Pol-Pol zeharkatu eta Aramaioko Udalerriko Izpiztikarriagan edo Gantzagan amaitzen dan bidea hobetzea izan da.

b) Aparkalekuak egiten. Santutegiko aparkalekuetan lekua egon dadin, 200 plazako aparkalekua egin da Urkiolako mendatean, errepidearen ondoan. Instalazio honen bidez Santutegi inguruan ibilgailu gutxiago ibiltzea lortu gura izan da.

c) Inguruncak jasotako eragina konpontzen. Bideak barriztatu eta Parkeko sarbideen hasieretan aparkalekuak egiteaz gainera, inguruan eragin kaltegarria eukeen zerak kentzen be saiatu dira. Adibide argia dogu, parkeko hainbat lekutatik agerian izan eta inguruan eragin handia egiten eban Urkiolagirre barranean kokatutako TV-ren errepikagailua kentzea.

Aurreko egintza guztion bidez, Urkiolako azpiegiturak urte osoan zehar gozatzeko eran antolatuta geratu dira, jendeari 56 Km. ingurutan zehar ibilaldi zoragarriak egiteko aukera bardingabea eskainiz.

II.3.5. Lurrak eskuratzea

Urkiolako Parkeko lur gehienak jabe partikularrenak izanik, ahalegin handi bat egin da, jabeak kaltetuak izatea aldentzeko eta, era berean, bertako landarctza kontserbatzeko. Hori, batez be, zuhaitziak erosiz egin izan da, Saibiko Iparraldeko maldan, Iturrioz errekaen iturburuan kokatutako pagadiak erosiz egin den legez. Era berean, koniferoak ebakita arbola barik geratutako lur batzuk be erosi dira, berreskuraketa landaketak egiteko.

Aitaturiko bost urteetan, 138 Ha. lur erosi dira, horretan berrogeita hamabi milioi bederatziehun eta sei mila zazpiehun eta hogeita hamaika (52.906.731) pezeta inbertituz.

II.3.6. Ikerketa eta lan teknikoak

Azkenik, ezin aitatu barik itzi Urkiolako Parkean egin izan diran ikerketak, ezta ikerbidean diran lanak be. Honetan be diru multzo galanta erabili izan da, egin-eginean be laurogeita hamabost milioi zazpiehun eta berrogeita bederlatzi mila seiehun eta hogeit (95.749.620,-) pezeta.

Kudeaketari hasiera emoteko oinarrizko haliabide modura, Parkeko plano bat egin zan 1/5.000 eskalan, 1990ean eginiko hegaldiak oinarritzat hartuz. Horrela, aireko argazkiak erabiliz 1.435 lurzati jasoten dituan landalurren katastroa egin zan mugetan mugarriak jarritz.

Era berean, landare eta animalici dagokiezan bizitzako gora-beherak kontrolatzeko oinarri-oinarrizko lanabesa "Arantzadi" Natur Zientzien elkarteak eginiko "Parkeko Flora eta Faunari buruzko ikerlana" izan da. Bertan fauna eta floraren katalogoa ageri da eta, baita be, Parkeko landareen mapa 1/5.000 eskalan.

Era berean, lanean dihardue Euskal Herriko Unibertsitateko botanikako katedratikoak "Bertoko landareen berriro ezartzeko irizpideak" deitzen dan ikerlana egiten jokabide egokien bila. Bestelako hainbat lan be egin izan da eta, badirudi, laster amaituak izango ditugula inguru honetako gora-behera gehienci buruzko barri zehatzak.


Ikerlan guztion bidez, ingurunea ondo ezagutzeaz gainera, naturguneak zaindu eta bertako jarduera ezhardinak orekan jarri nahi dira, parkea, ahalik eta kalterik gutxien sortuz, interesatu guztien onerako izan dadin.

II.3.7. Konpondu gabeko arazoak

Aurrekoa ikusirik, Parke hau ezin hobeto eratuta dagoala uste izango dan, behar bada, norbaitek. Herri Erakundeak gogotsu

lan egin ostean, ez daukala ezelako arazorik. Egia esatekotan, ahalegin handiak egin dira, bai, eta urrats ederrak emon. Halan da guztiz be, baditu oraindik konpondubako arazo larri batzuk. Labur-labur aurkeztuko deusuedaz:

-Harrobien ustiaketa: Parke honek une honetan daukan arazorik larriena, bertan kokatuta ustiaketan diharduen harrobiak dira. Batez bere Atxarteko harrobiena. Ageri-agerian hondaketa handia egiten dihardue. Bestalde, bat-batean lana eteteak lanpostu asko galtzea ekarriko ei leuke. Gatazka honek oihartzun zabala izan dau azken urteotan egunkarietan, eta eztabaida gogorak biztu baztarretan. Alkarrizketa luzeen ostean, konponbidea lortuta egoala uste zanean, barriro sortu dira tira-birak. Egunotan salaketa gogorak egin ditue Durangaldeko hainbat taldek Eusko Jaurlaritzak berbea jan, eta isilpean harrobien jabeei hainbat urtetan ustiatzen jarraitzeko baimena emon deusela esanez. Pil-pil dihardu, bada, gatazkak. Parkeko mugetan dagozan Mañariko harrobiei 30 urtetan zehar harria ateratzen jarduteko emondako baimenak be asko haserretu ditu ingurukoak, itzelezko kalteak ekarriko deusoz Mugarra mendiari eta. Egiantan oso itxura eskasa emoten deutso horrelako jarduerak bertako Parkeari!



-Jentearen begirunerik eza: Beste arazo bat, jenteak naturguneari deutson begirunerik eza dogu. Parkeko bideak hobetzean, geroago eta jente gehiago hurreratzen da bertara, batez be Pol-Pol inguruetara. Alde horrek, mendi gunearena baino gehiago hondartzaren itxura emon deutse inguruei, era guztietako jentez gainezka izaten dira eta. Bake eta atsedeen lekua izan beharrean, edozein hermitako kale nagusien antza hartuz zarataleru bihurtu da, irrati-hots, deadar eta abarrez animaliak eta uxatzen dituela. Benetako mendizaleek neurri zorrotzagoak hartu eta inguruguneko jarduerak zehazteko eskatzen hasi dira. Jentetza horrek, zaborrak jasotzeko ontziak jarri badira be, jentearentzat apropos jarritako atsedeneru eta ibilbideetako inguruak hainbatetan zikinkeriaz betetzea ekarri dau.

-Parkearen eta bertako bizilagunen arteko hartuemonak hobetu beharra: Orain arte ingurune hori jagon daben baserritarak, euren buruak mugatuta edota kaltetuta ikusi izan ditue, bertan dituen basoen erabilerari ezarritako neurriak dirala eta. Basoen erabilera mugatze horri, bertan askatutako abere basatiak baserrietako lurretan aurrerantzean egin daikeezan kalteak gaineratu behar jakez. Arazo horrek guztiak zentzunez eta daren onerako konpontzeko alde guztiak lankidetzan jardutea eskatzen dau. Hor dago ehiztarien arazoa be, eta alkarrizketa bidez konpondu beharko da. Kontuan hartu behar da, orain artean ingurune hori zaintzen halako eskuartze handia izan daben inguruetako bizilaunak aurrerantzean be laguntza emon beharko dabela. Aramaio inguruan Parkearen aurkako jarrera ikusi izan dot hainbat baserritarren artean. Behar bada, behar adina kontuan hartu ez diralako izango da!

III. Ondorioak

Lerro honeen bidez Urkiolako Parke Naturalaren aurkezpen labur bat eskaini gura izan deusuet. Beste hainbat eta hainbat esateko jakingarri geratu jataz lekua noz egingo itxaroten.

Urkiolako Parke Naturala, leku zoragarri baten kokatuta egoteaz gainera, berezko edertasun ugari gorde izan dituen alde bat dogula esan dot. Baina, hori ez da berezko zerbait, bertan bizi izan diranen amaibako ardurari esker lortutakoa baino. Inguru horretako baserritarrak eta zerikusi handia izan dabe jago-te horretan. Ezin bada, euren lan handi hori eskertu barik amaitu honako lerro honeek.

Hori dala eta, oso egoki iruditu jat, lantxo honi amaiera emoteko aurtengo urriaren 25ean egin zan Ereka-egunean Bizkaiko Aldundiko diputatu nagusiak idatzitako berbok gogora ekartzea:

“Mendeetan zehar baserritarrak izan dira, gure berezko ingurugiroaren jagole nagusienak. Nekazaritza eremuan egin duten lanari esker, gaur egungo bizkaitar gazteek hiriburu ingurueta-ko hirigune handien eta naturaren arteko oreka ezagutu ahal izan dute”.

Bestalde, gogoratu egin behar, Urkiolako Parke Naturalak baru hartzen dauan lurraldea, hainbatean, Euskal Herriak azken mende t'erdian jasan behar izan dauan erasotik kanpo geratu dan inguru ekologikoa dogula. Ekologia, paisajea, historia eta kultura arloan eukan aberastasunak ingurune hau parke natural izendatzea eskatu izan dabe, geroko belaunaldien gozamenerako oso-osorik gorde ahal izateko.

Patxi Uribarren